

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

#### Alkatetzaren eginkizunak eskuordetzea

Alkatetzaren 2024ko urriaren 1eko 288 zenbakidun ebazpenaren bidez, ebazpena onartu zen, eta haren xedapen-zatiak honela dio hitzez hitz:

Lehenengoa. Amagoia Sáez de Ibarra Vea-Murgiari, lehen alkateordeari, ematea alkatetzaren funtzio guztiak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 23.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, 2024ko urriaren 2tik 22ra, biak barne, oporreatiko absentsia-aldia dela eta.

Bigarrena. Eskuordetzeak zuzendaritza- eta kudeaketa-ahalmenak hartzen ditu, bai eta dagozkion administrazio-prozedura ebazteko ahalmena ere, hirugarrenei eragiten dieten administrazio-egintzak onartzuz.

Hirugarrena. Organo delegatuak alkatetza honi jakinarazi behar dizkio, a posteriori, eta, nolahi ere, hala eskatzen zaionean, aipatutako epean egindako kudeaketa eta emandako xedapenak, eta, erabaki garrantzitsuen kasuan, alde aurretik; Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 115. artikuluan aurreikusten den bezala.

Laugarrena. Dekretu honetan emandako eskuordetza eraginkorra izan dadin, organo delegatuak onartu egin beharko du. Ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita hiru egun balioduneko epean eskuordetza ez duela onartzen adierazten ez bada, isilbidez onartu dela ulertuko da.

Bosgarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da, eta haren edukiaren berri emango zaio udalbatzaren Osoko Bilkurari, egiten duen lehenengo bilkuran.

Seigarrena. Ebazpen honetan berriaz aurreikusi ez den guztian, zuzenean aplikatuko dira Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuan aurreikusitakoa, arau horietan eskuordetzeko ezartzen diren arauak dagokienez.

Hori guztia argitaratzen da, dagozkion ondorioak izan ditzan, Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 44.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Durana, 2024ko urriaren 1a

Alkatea

M<sup>a</sup> BLANCA ANTÉPARA URIBE